



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2017ko azaroa · 333. alea

TOKIKOM



**Ahotsak batuz
25 urte kantuan**



AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Joxe Felix Azkarate Xarra
- 6 Begira** Estaziñoko zuhaitza
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 Argazki bidez** Azarora argazkitan
- 18 Erreportajea** Ezoziko Ama Abesbatzak 25 urte
- 22 Kultura** Krabelin Pintura Eskola
- 24 Argazki bidez** Gaztañerreko uzta
- 26 Nondik nora** Aitor Gabilondo eta Nerea Torrano
- 27 Gabonak** prestatzen
- 28 Sakonean** Eloi Uriarte
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

Iritzia

- 3 Neuretik** Martin Luke *Epaile, epaimahai eta borrero*
- 16 Gutunak** Eskerrak boluntarioei *Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarte*
- 16 Komiki tira** *Berdintasunaren gaineko biñeta*
- 17 Zir(r)ika** *Sagar Errekako potzua*
- 17 Puntua** Gerardo Lorenzo *Kaixo, Soraluze*



Pil-pilean
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak:
aldizkaria@pilpilean.eus • 605 706 086

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Telefonoa

943 75 13 04
Erredakzioa Ubane Madera
Egoitz Unamuno 605 706 086
egoitz@pilpilean.eus

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Diseinua Goiena,
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi
Azala Fernan Oregi
Zuzentzailea Leire Ginea

Inprimategia

Gertu Koop.
Banaketa Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua: SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko
UDALA**

Epaile, epaimahai eta borrero



Martin
Luke

Jakinekora da azkenengo egunotan komunikabide guztiak bizpairu albisterein inguruan bueltaka ari direla. Jadanik, guztiok jakinaren gainean gaude “La Manada” deritzon kasuari dagokionez: 2016ko San Ferminetan, Iruñean, bost mutilek ustez burututako bortxaketari buruz ari naiz.

Zoritarrez, ez da San Ferminetan gertatzen den lehenengo erasoa. Oraindik pertsona askok bihotzean daramate Nagore Lafagge gazteak 2008an sufritutako heriotza bortitza. Agian, antzekotasun horrek jendearen samina berpiztu du, eta gertatutakoaren oihartzuna gure artean erraz hedatu da.

Izan liteke kasua bera nahikoa larria izatea; izan ere, eraso sexistek gure barnean zerbait mugiarazteko gaitasun berezia dute, hunkigarritasun garratz moduko bat. Edo izan liteke, epailetak martxan dauden heinean, abokatuek zein magistratuek hartutako hainbat eta hainbat erabaki guztion gustukoak ez suertatu izana.

“Komunikabide publikoek ere pertsonak epaitzeko eta zigortzeko ohitura hartu dute”

Kontua da modu batean edo bestean guztiok entzun dugula zer edo zer gai horri buruz. Guztiok jakin dugu biktimaren zein erasotzaileen argazki eta bideoen berri. Komunikabide publikoei esker, beraien abizenak ere jakin ditugu, baita adina, bizitokia, lana, hobbiak... ere. Datu horiek guztiakin edonork jakin dezake jada nortzuk diren eta baita euren anai, arreba, guraso, bikotekide eta lagun guztiak zeintzuk diren ere. Haiek ere gatazka larri horren parte dira eta gainontzeko pertsona

guztiak “Twitter”, “Facebook” edo dena delako sare eta giro sozialetan ematen diren iritzi eta kritika publikoen biktima ere badira. Agian, gure arrebak edo semeak halako istilu baten erdian egongo balira, gauzak beste modu batean ikusiko genituzke.

Beraz, informazio hori guztia jakinda, niri galdera bakar bat bururatzen zait: guztiz beharrezkoa al da? Pertsona horiek guztiak duintasunez eta errespetuz tratatuak izateko eskubidea dute, epaitegiaren erabakia edozein izanda ere. Berdin dio, adina, etnia, ikasketa-maila, langabezian dauden edo zer sexu orientazio duten. Hortan datza “guztioak legearen aurrean berdinak izatea”ren gakoa.

Zorionez, magistratuak, kasu horretan partaide diren pertsona guztien irudia eta intimitatea publikoki babesteko agindua eman du justizia auzitegian argazkiak eta grabaketak debekatuz. Bide horratik, komunikabide publikoek hausnarketaren bat egin beharko ote luketen, zalantza hori daukat, aspalditik beraiek ere pertsonak epaitzeko eta zigortzeko ohitura hartu baitute.

Jose Felix Azkarate

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Aurkezpena: Jose Felix Azkarate *Xarra* (Eibar, 1957) da Gaztelupeko Hotsak diskoetxe-argitaletxeko arduradunetako bat. Gainean dugun Durangoko Azokara uzta oparora eraman behar dute aurten.

Lanpetuta ibiltzeko sasoia da zuentzat, ezta?

Bai, Durangoko Azokarekin, urte amaierarekin eta horrelakoekin.

Beraz, disko asko eramango dituzue Durangora?

Egia esan, nahikoa gauza, eta interesgarriak. Gaztelupeko Hotsak zigilutik: Joseba Tapiaren *Besamotzak* diskoa. Bertan, trikitilariak gitarra elektrikoa jotzen du. Tapia aitzindariaren beste aurrerapauso bat. Bestetik, Xabier Montoiaren diskoa. Sei urtean argitaratu barik zegoen Hertzainak-en, M-ak-en kantaria... beti rock munduan ibilitakoa; eta orain, berriz, kantu ederrak grabatu ditu pianoa eta soka laukotearekin. Landu dugu *Mugaldekoak* diskoa ere. Berako uzta da, poesia eta rocka uztartzen duena. Eta *Larrepetit* talde berriaren lehen diskoa ere bai: Igor Arzuaga eta Danba taldeko partaide ohiak dira bertan. Nando de la Casa-rekin (Ruper Ordorikaren *Mugaldekoa* izandakoa) grabatu dute eta honek ekarpena egin du teklatueta eta programazioetan. Biniloan argitaratuko dugu eta gogora ekartzen ditu 70eko hamarkadako doinuak.

Eta gainontzeko bi alorretan?

Auto-ekoizpenaren atalean, Igor Arzuaga kantariaren disko berria eta Zamarra eta Aterkia talde nafarraren estreinaldia.

Errabal jazz zigiluarekin Ander Garciaren hirugarren diskoa: planteatzen du inprobisazioa lantzen duten euskal musikariendako, beti AEBtara begira egon beharrean, fijatze hemengo sustraiak dituen musikan. *Trizak* diskoa ere eramango dugu: Hasier Oleaga, Julen Izarra eta Jon Pirisek landutakoa. Baita Kike Mora, Korrontzi taldeko baxu-jolearen bigarrena, jazz-fussion arloan.

Badiozue ez zaretela ez musikagintzaren funtzionario ez kulturaren saltzaile, topaleku musikala baizik...

Afizioz hasi eta halabeharrez profesionalizatzen joan ginen, halabeharrez, zerbait serioa landu ahal izateko. Baina uste dut afizioa eta musika gustatzea beharrezko direla horrelako lanetan ibiltzeko. Guk bakarrik publikatzen dugu gustatzen zaigun musika. Baina klaro, ekonomia ere zaindu egin behar da.

Badiozue, baita ere, mezu aurrerazalea eman nahi duzuela. Zein da mezu hori?

Laster hogeita bost urte izango dira honekin hasi ginela eta bidean idazleekin harremanak izatea ere suertatu zaigu. Ildo horretan, pentsatzen dugu gauza bat dela kantatzea eta beste gauza bat edozer kantatzea. Zer kantatzen den uste dut kontuan hartzekoa dela.

Liburuekiko zaletasuna izanda, argitaratu ere egin ditugu, musikarekin lotutako batzuk.

Oraindik saltzen dira diskoak, baina?

Kontzertuetan, adibidez, saltzen dira diskoak baina dendetakoa asko jaitsi da, baita denda kopurua ere. Jendearen ohiturak aldatu dira: lehen LP bat erosi eta aste gutzia ematen zenuen horko kantua entzuten. Orain, berriz, gazte batek milaka kantu eduki dezake poltsikoan. Inoiz baino musika gehiago dago, baina kasu gutxiago egiten zaio musikari. Horrez gain industria musikala jausi egin da, trantsizio garaian gaude, euskarriak ere aldatzen...

Guk internetez ere saltzen dugu. Euskal Herriaz gain, Espainian saltzen ditugu blues eta jazz diskoak, eta Frantziatik, Alemaniatik edo Japoniatik... ere artean eskatzen dizkigute. Baina salmenta fisikoa asko jaitsi da. **Jazz-ak zuenean badu aparteko presentzia, Errabal zigiluarekin; zuek kaleratutako lehen diskoa, berriz, blues disko bat izan zen. Zela izan zen hura?**

Näo Goñi tabernan jotzen zegoela gaueko ordu txikietan, lau laguneren artean komentatu genuen: zer, *jarriko dugu dirua disko bat egiteko honi?* Eta horrela hasi zen kontua. Jazz-a, berriz, nire kontua da. Hemengo jazz musikari gehienek orain dela 20 urte Kataluniara joan behar izaten zuten, han zegoelako eskola, jazz-giroa... eta diskoak publikatzeko ere, hemen ez zegoen non, ez zegoen horrelako diskoetxerik. Gaztetxean eta Gaztelupen ere antolatzen genituen jazz kontzertuak eta pentsatu nuen aparteko zerbait izan behar zela hau: jazzari bakarrik dedikatutako zigilua (Errabal). Eta ja 95 erreferentzia doaz.

Ez dira halako asko egongo...

Euskal Herrian gu bakarrik; eta inguruan Bartzelonan pare bat, Galizian bat... jazzari bakarrik emanda, 4 edo 5. **Zeintzuk dira datozen 10 urteetarako lehentasunak?** Badugu datorren urtean sorta berri batekin hasteko asmoa. Binaka kantu argitaratu digitalean eta biniloko singlean. "Lokatzetan Play" izeneko saila. Bestela lasai bizi, gustatzen zaiguna argitaratu eta ondo konpontzen garen jendearekin moldatu. Berez, diskogintzatik gaitza da ja etekina ateratzea; handiak ere halamoduz dabilta. Eta sufritzeko ez gaude munduan, disfrutatzeke bai.

Musikak zelako bilakaera izan du?

Nahiz eta, katalogo batean egoteko edo diskoetxetara bueltatzeko joera txikia badagoen, auto-ekoizpenaren tentsioa da datu inportantea. Dena den, Euskal Herrian musikagintza osasuntsu dago. Denetik egiten da, estilo guztiak. Eta eskema zaharrak errepikatzeke joera nagusia izanda ere, urtero ateratzen dira disko, kantu eta proposamen interesgarriak. Hala bedi!

**“Datorren urtean
sorta berri batekin
hasteko asmoa
dugu: digitalean
eta biniloko
singlean binaka
kantu argitaratu”**

JOSE FELIX AZKARATE



Estaziñoko zuhaitza

ARGAZKIA: PABLO ARROYO
TESTUA: UBANE MADERA

Urteko sasoi honetan soralezatar askok poltsikoko telefonoan duten argazkia Estaziñoko zuhaitzarena da. Lagunak zoriontzeko postal moduan erabiltzen duenik ere bada. Izan ere, udazken koloreak gutxik moduan erakusten ditu Estaziñoko likidanbarrak. Haren hostoek udan batutako eguzki izpien kolore laranja zela gorritzen den erakusten dute, zuhaitzak berezko argitasuna balu moduan. Eta apurka-apurka jausten doaz gero, hosto-alfonbra sortzeraino. Fruitu biribilak ematen ditu eta negu osoan izaten ditu dilindan. Ipar Ameriketara du jatorria. Europara XVII. Mendean iritsi zen. Likidanbar izena, "likido" eta "anbar" hitzen elkarketa da, azaletik ateratzen zaion erretxina anbarakara dela-eta. Erretxina hori lurrindegietan erabiltzen da, Peruko baltsamoa izenarekin.





Hizkuntza aktibaziorako egitasmo berritzailea plazara



lazko argazkia Euskararen Egunean.

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, aurkeztuko dute Pilpilean Euskaltzaleen Elkateak eta Soraluzeko Udalak Euskaraldia: 11 Egun Euskaraz egitasmoa. Hitzordua eguerdiko 13:00etan egin dute Plaza Barrixan, eta bertara deitu dituzte herriko euskaltzaleak.

Arianne Unamuno Pil-pileaneko lehendakariaren esanetan, ezohiko ekitaldia izango da aurtengo Euskararen Egunerako prestatu dutena: “ez da azken urteotan egin izan dugun moduko ekitaldi sinbolikoa izango; izan ere, aurtengoa baliatuko dugu herritarren hizkuntza-ohituretan eragingo duen egitasmo sozial berritzailea aurkezteko”.

Pil-pileaneko ordezkariak azaldu digunez, aurretik metodologia hori

ezarri duten herrietan (Egian, Lasarte Orian, Agurainen) oso emaitza onak izan dituzte, euskararen erabilera nabarmen hazi da-eta. Metodologia horrek balio du euskaraz egin nahi duten herritarren eta euskaraz entzuteko prestutasuna dutenen arteko harreman linguistikoa bideratzeko, euskararen faboretan, zehaztu du Unamunok.

Hainbat herritan probatu eta gero, euskalgintzako gizarte eragileek (Euskaltzaleen Topaguneak) eta instituzioek (Eusko Jaurlaritzak) erabaki dute herritarren hizkuntza-aktibaziorako egitasmoa elkarrekin bultzatzea, eta 2018ko udazkenean Euskal Herriko 50 herritan baino gehiagotan egingo da; besteak beste, Soraluzen.

Abenduaren 3an, aipatu egitasmoa aurkeztuko dute jendaurrean, eta, hortik aurrera, egitasmoa prestatzeko lanei ekingo diete.

Jardunaldiak eta 365 lan-taldea
Pil-pileanek antolatuta, Batu Sutondora jardunaldiak egingo dira abenduaren 16an, eta hizkuntza-aktibazioa eta Euskaraldia izango dituzte hizpide nagusi. Gainera, 365 lan-taldea osatzeko pausoak ere emango dituzte. Asmoa da datozen hilabeteotan egitasmoa gidatuko duen lan-talde hori euskalzale boluntarioekin osatzea.

HITZORDUA

Abenduak 3, domeka
13:00
Plaza Barrixa

Abenduaren 21ean ekarriko dituzte errefusa batzeko edukiontziak

Abenduaren 21etik abenduaren 26ra bitartean ipiniko dituzte edukiontzi berriak Sorluzen. Gris kolorekoak izango dira, errefusa batzekoak, eta txip bitartez funtzionatuko dute. 26 halako ekarriko dituzte, 17 edukiontzi 2.200 litrokoak eta beste bederatz 1.000 litrokoak. Behin guztiak ipinita, sorluzetarrek sailkatuta eraman beharko dituzte hondakin guztiak edukiontzietara, derrigorrez, besteak beste, edukiontzi berdeak, gaur egun hondakin orokorrak batzeko erabiltzen direnak kendu egingo dituztelako.

Abendu amaieratik

Hondakinak batzeko udalerriko puntuetan, beraz, abendu amaieratik aurrera izango dira honako edukiontzi motak: urdinak (papera eta kartoia batzeko), horiak (enbaseak batzeko), marroiak (organikoa batzeko) grisak (errefusa batzeko) berdeak (kristala batzeko) eta zenbait puntutan baita zuriak ere, arropak batzeko. Lur azpiko edukiontzien funtzionamendua da aldatuko ez den bakarra, merkaturan ez dagoelako horiek erabiltzeko txartelik.

Gutun bitartez

Edukiontzi berrien gaineko informazioa gutun bitartez helaraziko die Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak sorluzetarrei. “Bi gutun bidaliko ditugu: bata gaur egun edukiontzi marroia erabiltzen dutenei. Haiei jakinaraziko diegu gaur egun erabiltzen duten txartel berbera erabili ahalko dutela edukiontzi grisak erabiltzeko. Eta beste gutun bat bidaliko diegu gainontzeko herritarrei, saltokiei, tabernei, jatetxeei... Bertan esplikatu diegu zela aurrerantzean beti beharrezkoa



Erregetxean dauden edukiontziak.

izango den txartela erabiltzea edukiontzi grisak eta marroiak erabiltzeko; sistema berriaren funtzionamenduaren berri ere emango da, dituen onurak azalduko dira, eta materiala non eskura daitekeen jakinaraziko da”, esplikatu du Jose Fran Muniozgurenak, mankomunitateko gerenteak. “Elkarte gastronomikoei beste gutun bana bidaliko diegu, gurekin harremanetan jar daitezen”, gaineratu du hark.

Informazio bulegoa

Hain justu ere, materiala, hau da, txartela, kuboa (10 litrokoa) eta konpostatzeko poltsak, edo bestela esanda, edukiontziak erabiltzeko kit-ak emateko eta informazioa partekatzeko puntua egokituko dute abenduaren 11tik abenduaren 21era bitartean, udaletxeko osoko

Informazioa eta materiala banatzeko bulegoa egokituko dute udaletxeko areto nagusian

bilkuren aretoan: lanegunetan 11:00etatik 20:00ak arte, eta zapatuan, 09:00etatik 14:00ak arte.

Informazio ugari emango dute

Eta edozein modutan ere, herrian kartelak ipiniko dituzte eta edukiontzietan bertan ere bai, aldaketa guztien berri emateko. “Laburbilduz, abenduaren 20ra arte orain arteko edukiontziak izango dira eta abenduaren 21etik aurrera, berde-orokorrak kendu egingo dira. Eta behin sistema berria abiarazita, herritar bakoitzak edukiontzi grisak zein marroiak zenbat bider erabiltzen dituen kontrolatu egingo da, txiparen bitartez. Beraz, derrigorrezkoa izango da hondakinak sailkatuta botatzea”, azpimarratu du Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko gerenteak.

Abenduaren 21etik aurrera edukiontzi berdeak, hondakin orokorretarakoak, kendu egingo dituzte

Gabonetarako edo urte hasierarako berrituko dute Estaziñoko parkea



Estaziñoko parke berrituak izango duen itxura.

Oreka jolasetan oinarritutako parke-proiektua aurkeztu dute Sorraluzeko Udalak eta Kukumixok Estaziñorako. Zirkuitu estilara antolatuta, bi eremu izango ditu: eskumako aldeko zatia eremu aktiboa izango da, eta ezkerrekoa lasaia. Behin betiko proiektua ixteke dago, ekarpenak jasotzeko fasean.

Proiektuari dagokionez eta eremu aktibotik hasita, zentzoko jolasak kentzea da asmoa, espazioa hobeto aprobetxatzeko. Eta, marrazkian ikusten denez, parkearen bueltan ezartzea jolas berriak. Oreka jolasetan oinarritutakoak izango dira, eta enborrak, ezkutalekuak, sareak eta sokadun eskailerak ipintzea proposatzen dute; baita bi txirrista ere, bata estua eta bestea zabala.

Zentzoko espazioa libre laga nahi dute, bilgune modura erabiltzeko, eta haren bueltan kokatuko dituzte jarlekuak. Zoruari dagokionez, erdigunea belar artifizialekoa izango da, azpian kautxuduna, biguna izan dadin. Eta jolasetan, berriz, egur birrindua, pinu oskolak eta antzerako materialak dituzten zoruak ezarriko dituzte.

Eremu lasaia, berriz, simpleagoa izango da. Oreka jolasen bat edo beste izango du hasierako zatian, eta espazioa zabaltzen den eremuan hondar-gunea. Era berean, gune horretako hormigoizko pareta landarez estaltzeko aukera mahai gaineratu dute, goxatzeko.

Hau guztia Azpeitiko Kimu Bat enpresak egindako proposamena da. Baina ez da behin betikoa. Ekarpenak jasotzeko fasean dago egitasmoa, beraz, baliteke aldaketak izatea, ekarpenak aintzat hartuta.

Izan ere, Estaziñoan zelako parkea nahi den erabakitzeke parte-hartze prozesua baliatu du udalak. 14 saio egin eta horietatik ideia mordoak jaso ondoren, gehien aipatutakoak Kimu Bat enpresari helarazi zizkion; eta orain, Kimu Bat enpresak landutako proiektua da partekatu duena. Oraingo astean, esaterako, gurasoekin partekatu zuten.

Ondo bidean, ekarpen fasea bukatu, obrak adjudikatu eta hiruzpalau astean gauzatuko dituzte lanak: urte amaierarako edo urtarril erdialderako. 35.000 euroko inbertsioa egingo du udalak.

Leherketak, mendiari zatia jateko



Datozen bi asteotan hainbat leherketa egin behar dituzte Hirukurutzetako biribilgunea eraikitzeke obretan. Azpiegitura berriari lekua egiteko mendia jan egin behar dute, 20 bat metroko lur-erazketa eginez, eta hori lortzeko leherketa bidezko bizpahiru eraispin egingo dituztela jakinarazi du obrak egiten diharduen Excavaciones Peru enpresako Txomin Otegi obra arduradunak. Halakoetan ohi denez, TNT-a erabiliko dute leherketak egiteko, eta beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuko dituzte: Osintxuko irteeratik Plazentziako sarrerarainoko zirkulazioa eten egingo dute 5-10 minutuz, 300-400 bat metro errepide itxi egingo dute, beraz. “Inguruko pabilioietara... abisatu egingo dugu; pareko bidegorri zatia ere itxi egingo dugu; halakoetarako dagoen protokoloa segituko dugu”, esplikatu du obrako arduradunak.

Hain justu, leherketa horiek izango dira biribilgune berriko obraren zatirik handiena. Gero eskabazioak egin eta biribilgunea bera eraikiko dute. 36 metroko perimetroa izango du eta 465.235,26 euroko inbertsioa egingo du diputazioak. Asmoa da urte amaierarako bukatuta izatea.

"Zerbitzu osoa eskaini behar zaie herritarrei"

Maite Gorostidi (Soraluze, 1956) da Soraluzeko Kooperatiba Elkarteko presidentea eta Aitor Prieto (Soraluze, 1975), berriz, kooperatibako idazkaria. Haiek jakinarazi digute hobekuntzak egingo dituztela herriko saltokirik handiengan.

Ze hobekuntza?

Arrandegia ipini behar dugu, eta sarrera eta aurralde (fatxada) berrituko ditugu.

Noizko?

Arrandegiko obrak astelehenean hasi ziren, eta arrandegia urtarrilaren erdialdean zabalduko da. Beheko solairuan ipiniko dugu, igogailuaren ondoan. Han biltegi txiki bat dago eta haren lekuan jarriko dugu, frutategiaren ondoan. Urtarrilean zabalduko da, baina orain beheko solairua beste astebetez itxi egingo da, ze egokitzeko lanak egin behar dira. Gokik egin behar ditu obrak.

Nolatan arrandegia?

Plazentzian gabezia zegoela pentsatzen genuelako, eta herrian arrandegi bat baino gehiago izateak jendeari aukeratzeko aukera ematen diolako. Jendeari erosketak integratu, osoa, egiteko aukera eman nahi diogu, zerbitzu hobea eskaini. Orain dela 2-3 urte hasi ginen ideiarekin, eta orain hasi gara gauzatzen.

Eskaerak izan dituzue?

Geuk izan genuen ideia. Kalean jendeari galdetu eta ikusi genuen ideiak harrera ona zuela, eta aurrera egin genuen. Argi geneukana zen ez genuela langilerik kontratatu behar. Gune hori alokairuan eman behar dugu, eta datorrenak ekarriko du arraina eta jarriko du langilea ere. Bera Ondarrutarra da, baina arrandegia Elgoibarren dauka; lehen Eibarren arrandegia izandakoa da, Rosa Burgoa.

Obra gehiago ere egingo duzue...

Bai. Saneamendua berrituko dugu, hoditeria zaharra dugu-eta. Bestalde, hozkailuak ere zaharkituta geratu dira eta bi handienak berritu egin



Aitor Prieto kooperatibako idazkaria eta Maite Gorostidi presidentea saltokiaren aurrean.

behar ditugu: frutategikoa eta jogurtena.

Eta sarreran zer egin behar duzue?

Dauden ateak oso astunak dira eta sarrera oso estua, kontuan izanda oztopo arkitektoniko handia dela, ate automatikoak ipiniko ditugu, irisgarritasuna errazteko. Gainera, alderik alde arrapala ipiniko da, zoru egokiarekin, inor labaindu ez dadin.

Eta fatxadan?

Lehenengo solairuan ipiniko da erakusleiho handi bat, alderik alde. Textilean.

Obra handia egin behar duzue, beraz...

Saltokia XXI. mendera egokitu nahi dugu. Azken batean, herriko denda denez eta izaten segituko duenez zerbitzu osoa eskaini behar zaie herritarrei. Era berean, gazteei lagundu nahi diegu, lanean egun osoan dabilenez, arraina arratsalde ere edozein momentutan erosi ahal izan dezaten, nahi genuke gazteek bertaratzeko joera handiagoa hartzea. Textilean ere, jantzien arloan, hartu diogu erreleboa Maria Jesus Gallastegi mertzeriakoari. Hura datorren hilean erretiratzen denez, berak bere garaian erreleboa hartu zion Felisa Idigorasi, orain Kooperatibak berari hartuko dio. Kooperatiba hasi da saltzen berak 25 urtean saldu izan dituen hainbat produktu.

Eta erakusleihoa?

Kooperatibak ez du erakusleiorik, eta jende askok ez daki ze produktu dagoen salgai. Gabezia horrekin konturatuta, erabaki genuen duguna bistaratzeko, nolabait jendea sartzera gonbidatu. Badago jendea ez dakiena ezta jantziak saltzen direnik ere.

Oro har, erosleen artean, ze ohitura ikusten da?

Gehien dabilen jendea jende nagusia dela. Bizi guztian bertan erosketak egin dituen. Eta herriko denda guztiak behar dutena da herriko gazteek herrian erostea. Guztia bide horretatik doa: bai fatxadarena, bai arrandegiarena... jende gaztea erakartzeko, ez izatea kanpora joan beharra erosketak egiteko, eta horretarako leku erakargarria ipini behar da.

Beste zerbait egin behar duzue?

Leihoak eta balkoiak, egurrezkoak direnez, PVCzkoak ipiniko dira eta fatxada margotu. Erakargarritasuna eman, parean pasatzen den jendeak ikus dezan.

Beste zerbait gaineratu nahi duzue?

Guztia egingo dela Kooperatibak duen diruarekin. Zalantzen bat edo beste egon da: obra hori nola finantzatuko den edo ea kooperatiba zorpetuko den... Eta ez da horrela. Guztia kooperatibaren baliabideekin ordainduko da eta zorpetu barik.

150 panpin izango dira aurten tonbolan

Datozen egunotan, Santa Ana kaleko lehenago ferreteriaren erakusleihoa dotore jantzitako panpinez beteko da. “Egunotan muntatuko dugu; tonbola baino 15 egun lehenago saiatuko gara gertu izaten”, jakinarazi dute Misio taldetik. Panpinen tonbolari buruz dihardute, Misio taldeak bi urtetik behin antolatzen duen tonbolari buruz, alegia. Aurten, abenduaren 14an da. Ohi duten moduan, egun berean, arratsaldean Kontzejupean egongo dira Misio taldeko boluntarioak eta laguntzaileak txartelak saltzen, euro baten truke bakoitza, agortu arte. Eta beste urte batzuetako esperientziak erakusten du bizkor ibili behar izaten dela txartelak eskuratu nahi izanez gero, “jendearen parte hartzea handia da, nahiko arin saltzen dira, batez ere, panpinak tokatu arte”, diote. Gainontzean, ordutegia honakoa da: lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara; zapatuan, 11:00etatik 13:00etara eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Tonbolako opariei dagokienez, zela ez, panpinak ditu protagonista, bestetan baino gehiago daude, gainera: “150 panpin ditugu aurten, orain dela bi urte baino gehiago. Oraindik panpinak prestatzen gabilta, jantzi batzuk falta dira”.

Izan ere, panpinen jantziak inguruko boluntarioek egiten dituzte: Eibar, Bergara, Elgoibar, Arrasate... “Eibarren, adibidez, bada emakume bat jantzi piloa egin duena. Soraluzen, berriz, antolatu dugu tailer moduko bat, eta hilean behin elkartu gara josteko. Etxera lana eraman beharrean, taldean elkartu eta askoz errazago egiten da, ze batzuk gainera ez dakigu halakoak egiten. Hilean behin elkartzeko ibili gara, Aste Santuaz geroztik edo. Dozena erdi bat lagun ibili gara. Bestalde, panpinetatik aparte bestelako opariak ere egongo dira tonbolan, dendariak, tabernariak, eta herritarrek ematen



Soraluzeko boluntarioak panpinendako jantziak egiten.



Dominikar Errepublikarako

Gainera, tonbolan batutako dirua oinarritzko beharrak dituzten komunitateetara bideratu ohi du Misio taldeak. Proiektuak urtero dira desberdinak. Aurten, Dominikar Errepublikara bideratuko dute laguntasuna, Santo Domingoko Karitatezko Mesedeetako kongregaziora. Eta kongregazioko mojek bertako mediku kontsultarako baliatuko dute, *La Lima* izeneko zerbitzu medikurako. Zazpi profesionalak dihardute bertan lanean, bereziki, umeei arreta ematen. Eta laborategia ezarri nahi dute, gaixoen diagnostikoak hobetzeko eta baliabide ekonomiko gutxi duten pertsonen kalitatezko arreta emateko. Oro har, 5.790 bizilagun dituen komunitateari nahi zaio eman zerbitzua. Azpiegitura oso eskasak dituzte bertan; adibidez, ez dute edateko urrik; egurrezko etxeetan bizi dira, zink-eraz egindako teilatuak dituztenak. Laborategia ezartzeko 6.539,98 euro behar dituzte.

dituztenak, baina izan behar da estreinatuta bakoia, zerbait berria”.

Panpinak ekarri, berriz, Alacantetik ekartzen dituzte. “Badago han fabrika bat halako panpinak egiten dituena. Eibartarrak gu baino lehenago hasi ziren panpinen tonbolak antolatzen; haiek komentatu ziguten Alacantetik

ekartzen dituztela”, esplikatu dute Misio taldekoak.

Orain dela 10 urte hasi ziren panpinen tonbola egiten Soraluzen, bi urtetik behin egiten dutena. “Lan piloa; tonbola bukatu ondoren hasten gara hurrengoa prestatzen; eta urtero eginez gero, akaso, jendea aspertu ere egingo litzateke”.



DANOBATGROUP

Euskara aldean, erabili lanean

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!



Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi **bi gaueko egonaldia bi lagunentzat**

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2017.html>


*Parte hartzeko azken eguna: 2017ko abenduak 11

DANOBATGROUPek lehiaketa antolatu du kooperatibak dituen herritar guztiei zuzenduta

lazio ekimenari jarraituz aurten ere DANOBATGROUPek Euskararen Nazioarteko Egunaren harira kooperatibak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa jarri du martxan *Euskara aldean, erabili lanean* lelopean.

Webgunean klikatu eta kooperatibari buruzko **galdera orokor batzuei erantzun** ondoren DANOBATGROUPeko hiztegi teknikoan sartu eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste.

DANOBATGROUPek konpromiso sendoa du gizartearekin eta gizartearekiko konpromiso sendo horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere. DANOBATGROUPek harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin **euskara erabiltzeko konpromiso sendoa** du.



Azaroa argazkitan

ARGAZKIAK: MIKEL VALERO, NAIARA KORTABARRIA, FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA
TESTUA: UBANE MADERA

1. Juan Jose Alberdi eta Maritxu Garate, 80 urtetik gorako aitortza jasotzen.
2. Mozorro "beldurgarriak" izan ziren Arimen Gauean
3. Plaentxi Eskolan gaztainak janez eta kantuan eta dantzan ospatu zuten Gaztañerre eguna.
4. 90 bat neska-mutikok jardun zuten txorimaloak egiten,
5. Gaztañerreko Txorimalo Lehiaketan.
6. 40tik gora argazkilari erakarri zituen Kontrargi Kolektiboaren Argazki Rallyak.
7. Soraluzeko 1. Haurren Egunean tailerrak eta puzgarriak egin zituzten.
8. Musika doinuak barreiatu zituzten Musika Eskolakoek Santa Zezili egunean.





Gaztañerreko boluntarioei

Ur epela bota zenion artirinari eta nahasi, bolak egin, makinan zapaldu eta eskuz mehetu; txapan berotuta parrilean erre, tartekoa gehitu eta barraren bestaldean gose aurpegiarekin zain dagoen herritarrari eman zenizkion.

Patatak eta kipulak zuritu zenituen, eta babekin batera lapikora bota. Egosi zenituen azak, eta haragiak -platerera heldu orduko sakramentu bihurtu zirenak-. Jaten eman zenien ehun eta hogeita hamar bazkaltiarri, eta denek jan zutenean exeri zinen zu.

Erromeria bete betean zegoela barraren atzean egon zinen eta irriparre eder batekin zerbitu zenizkion edariak amaierarik ez zuen jende multzo hari.

Eta beste hainbeste lan.

Hirurogei lagun baino gehiago izan zarete, aurten ere, musutruk, Pil-pileani lagundu diozuen euskaltzaleak. Bejondeizuela!

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartea

Itxaropena elkarteko ordainketak

Itxaropena elkarteko bazkideei jakinarazi nahi diete abenduaren 18ra bitarteko epea dutela urteroko kuota ordaintzeko: 10 euro. Eta epe bera baino lehen egin behar dela bost euroko ordainketa loteria erosteko. Beraz, 15 euro ordaindu behar dira, abenduaren 18a aurretik.

Itxaropena Jubilatuen Etxea

aldizkaria@pilpilean.eus
[helbidera bidali gutunak](#)

Lan-deialdia “11 egun euskaraz” ekimena dinamizatzeko

Pil-pilean Euskara Elkartek dinamizatzailea behar du “11 egun euskaraz” ekimenerako.

Eskaintzen da:

- Astelehenetik ostiralerako lana (astean 10 orduko kontratua).
- Urtebeterako kontratua

Bete beharreko zereginak:

- Soraluzeko Euskarak 365 Egun taldea koordinatu
- Ekimena koordinatu
- Bilerak dinamizatu

Baloratuko da:

- Dinamizaziorako eta harremanetarako gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatze gaitasuna izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Soraluzekoa izatea.

Curriculumak aurkezteko epea:

Azaroaren 25etik abenduaren 15era
Nora bidali?

Errabal 15, 1. pisua. 20590 Soraluze
943751304 / 688613698
pilpilean@pilpilean.eus (Arianne)

Tokikomek, tokiko komunikabideen bateraguneak, genero berdintasunaren inguruan gogoeta eragiteko sortu duen komiki-tira.



ZIR(R)IKA

Sagar Errekako potzua**hemendik aurrera
bañujantzia!!**

Egilea: P.G.

PUNTUA

**Gerardo
Lorenzo****Kaixo, Soraluze**

Beharbada batzuek ezagutuko nauzue Txurrukako kubatarra moduan, baina gutxiak jakingo duzue nire euskal jatorriaren berri. Nire izen osoa ondorengoa da: Gerardo Alberto Lorenzo Gallardo y Justiz. Azken abizen hau da nire familiari jatorria ematen diona, 1659ko maiatzaren 28an Jaizkibelen sortua, Hondarrribian, hala jartzen du bertan ageri den kapitulu-aktan: "Santxo Abarka Nafarroako Erregek baserria eta inguruko lurrak eman zizkion Justiz sendiko dontzeila bati, zeinarekin ondorengoak izan baitzituen". Historia honen gaineko xehetasun gehiago jakin nahi dutenak jar daitezke nirekin harremanetan. Zorionez, garai hartatik gaur egunera arterainoko zuhaitz genealogiko osoa dut neurekin.

Nire burua aurkeztuta, nire helburua da elkartruke atsegin eta aberasgarria bideratzea, interesatu dakigukeen edozein gairen inguruan. Asmoa dut idazteko Kuba, Euskadi, Soraluze eta bertako herritarren gainean; neure ikuspuntutik, eta gustatuko litzaidake erantzutea izan dezakezen edozein galderari:

glorenzogallardo@gmail.com





Oraingo eta lehengo abesbatzako hainbat kide oraingo asteko martitzenean entsegua egiten.

ERREPORTAJEA

Zilarrezko eztei gozoak

25 urte jardunean ibiltzea eta indartsu segitzea ez da batere ohikoa eta erraza izaten. Bada, *Ezoziko Ama Abesbatzak* lortu du hori. 2017an du 25. urteurrena, 1992an lehen pausoak eman zituenetik. Eta gaur egungo erretratua egiten hasita, *Ezoziko Ama Abesbatza* definitzeko azpimarratzen dituzten ezaugarri nabarmenen artean honako hauek gailentzen dira: lagunartea, familia eta lagun kuadrilla.

ARGAZKIAK: EZOZIKO AMA ABESBATZA, FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA TESTUA: UBANE MADERA

Abesbatzako hiru kideekin jardunda, Silvia Hernandez zuzendariak, esaterako, zera adierazi du: familia bat dela. Abel Olaizola presidentek eta tenoreak, berriz, azpimarratu du harreman berezia dutela eta Ane Ugalde sopranoak lagun kuadrilla dela.

Batasun giro horretan dihardu Soraluzeko abesbatzak Zilarrezko Ezteiak ospatzen, bestetan baino ekitaldi gehiagorekin. Ildo horretan, herritik kanpora joanda edo gonbidatuak bertara ekarrita, hainbat kontzertutan parte

hartu du orain arte. Hala ere, urte bukaerara bitarteko hitzorduak dituzte orain jo-puntuak, berezianak direlako. “Geuretako emotiboena biharko (zapateria) kontzertua izango da. Musikari dagokionez, berriz, abendukoa, Elgoibarko bandarekin egin behar duguna; hala azaldu digu Ane Ugaldek.

Izan ere bihar, zapateria, 60 bat lagun elkartu behar dira *Ezoziko Ama Abesbatzaren* bueltan. “Santa Zezilia ospatuko dugu. Orain arte koroan ibilitako jendea

gonbidatu dugu eta gurekin pare bat kantu abestuko dituzte. Gero, Txurrukan afalduko dugu denok batera. 35 bat lagun elkartuko dira, abesbatzako kide izandakoak denak. Nagore Sanz (hasierako zuzendaria) ere gonbidatu genuen, baina kasualitatea, beste kontzertu bat dauka egun horretan bertan. “Nahi genuen berak zuzentzea bere sasoi kanturen bat, baina ez da posible zan”, esplikatu du Abel Olaizolak.

20:00etan egin dute biharko hitzordua, Herriko Antzokian. 14 kantuz osatutako errepertorioa eskainiko dute: “Parte bat euskal folkloreko kantuek osatuko dute, eta beste bat obra polifonikoek. Eta lehenengo eta oraingo kideok, berriz, elkarrekin abestuko ditugu bi kantu: *Euskal Herriko* eta *Agur Jaunak*, 25 urteotan beti abestu izan ditugun kantuak direlako”, horixe azaldu digute abesbatzako bi kideek.

Abendurako, aldiz, kontzertu berezia prestatzen ari dira, Elgoibarko banda lagun dutela, azaldu digutenez 50 lagunek osatzen dute Elgoibarko banda, eta kontzertua kiroldegian izango da, bertako frontoian. Inguru guztia egokitu beharko omen dute. Hitzordu horretarako kantu-errepertorioa ezohikoa izango dela ere adierazi dute.

Historia apur bat eginez:

Aurten 25 urte beteta, 1992. urtera jo behar dugu, bada, Plazentziako abesbatzaren sorreraren berri izateko. Edozelan ere, ez zen hutsetik sortu *Ezoziko Ama Abesbatza*; izan ere, herrian lehenagotik ere bazeuden abesbatzen sokari segitu zion. Eta soka horren lehen punta *Coro Parroquial* abesbatza izan zen; ondoren, *Coro Soraluze* bilakatu zen, eta gero *Ezoziko Ama*. Abel Olaizola (Soraluze, 1958) hasiera-hasieratik izan da abesbatza bateko edo besteko kide, beraz Soraluzeko abesbatzen bilakaerarekin erabat lotuta du bere abeslari ibilbidea: “Soldaduzkatik etorri eta handik 15 egunera hasi nintzen *Coro Parroquial*en, 23 urterekin. Aita neukan koruan sartuta-eta, tio ere bai... Olaizolatarrak beti izan dira musikariak, eta neuk ere odolaren deia-edo izango nuen... Orduan, gizonezkoak baino ez zeuden koruan. Gerora hasi ziren andrak sartzen, *Coro Parroquial* hura desegin eta *Coro Soraluze* sortu zenean. Ondoren, erakunde egitura eman zitzaion eta *Coro Soraluze Ezoziko Ama Abesbatza* bihurtu zen. Beraz, 1992tik lau-bost urtera aldatu zitzaion izena. Hala ere, 1992an hasi zen koruaren ibilbidea, eta, orduan, Elgoibarko bandarekin egin genuen lehen kontzertua, eta, bestea beste, Nabuco kanta abestu genuen. Huraxe izan zen gure “suzko froga”: lehen kontzertua. Ordutik, abesbatzan 62 lagun izatera ere ailegatu gara inoiz, 1995-1998 bitartean izan zen hori”.

SANTA ZEZILIAKO KONTZERTUA

Lehen zatia:	Bigarren zatia:
<i>Axuri beltza</i>	<i>Tourdion</i>
<i>Maitetxu mia</i>	<i>Cantares</i>
<i>Loriak udan</i>	<i>Te quiero</i>
<i>Gaur akelarre</i>	<i>Locuras</i>
<i>Mendirik mendi</i>	<i>El abanico</i>

Agurra oraingo eta lehenengo abeslariarekin:
Euskal Herriko
Agur jaunak



1. Soraluzeko lehenengo Ezoziko Ama Abesbatza Plaza Berrian On Aszensioren gidaritzapean, 1962. urtean.
2. Soraluzeko oraingo Ezoziko Ama Abesbatza Unescoko palazioan, Parisen, abesten 2004an.

Bestalde, Olaizolak zera jakinarazi digu, Soraluzeko abesbatzaren izena ere, lehenago herriko beste abesbatza batek izandako bera dela: “Lehenago ere egon zen *Coral Ezoziko Ama* izeneko korua, Don Ascensioaren garaian. Gaur egun, abesbatza diharduten kide bi behintzat, abesbatza hartako kide izan ziren: Gloribel Oregi eta Begoña Txurruka”.

Gaur egungo erretratu

Gaur egun, 25 kidek osatzen dute *Ezoziko Ama Abesbatza*: bederatzi gizonezko eta 16 emakumezko. Adineki dagokienez, 24 urtetik hasi eta ia 80 urterainoko kideak ditu eta 2001az geroztik Silvia Hernandez elgoibartarra da abesbatzako zuzendaria.

Hain justu ere, Hernandezek berak abesbatzako kideen arteko adin desberdintasun hori azpimarratzen du ezaugarri berezi moduan: “Oso deigarria da jarduera batek hain adin desberdineko jendea batzea. Ez dakit bestelako jarduera batek halakorik lortzen ote duen. Herri honetako abesbatza desberdina da”.

Taldearen heterogeneitate hori da, Ane Ugaldek (Soraluze, 1983) ere nabarmetzen duena: “Gu oso gustura ibiltzen gara. Pentsaera desberdinak, edade desberdinak, sasoi desberdinak... eta denok bat eginda goaz, baina ez korua delako, lagun kuadrilla delako baizik. Musika apur bat gustatuz gero, lagunartean egoteko aitzakia ederra da korua”.

Ugaldek ere ondo asko daki zer dioen, eskarmentu luzea du-eta *Ezoziko Ama Abesbatzako* kide modura. “1999an hasi nintzen, 16 urterekin; orduan, kuadrillako hiru lagun etorri ginen musika-eskolako abesbatzatik.




“Kanpoan beti esan izan digute: jo, halako edade desberdinekin, eta ze ondo konpontzen zareten!”

ABEL OLAIZOLA

“Erronka handirik baino, nahi dugu daukaguna mantendu eta indartu; hobetu egin nahi dugu musikalki”

ANE UGALDE



Silvia Hernandez

Silvia Hernandez (Elgoibar, 1975) da *Ezoziko Ama Abesbatzaren* zuzendaria 2001az geroztik. Donostiako Kontserbatorioan musikako goi-mailako ikasketak egindakoa da, berez, piano arloan. Elgoibarko abesbatza hasi zen kantuan, 17-18 urterekin. Eta 24

urterekin hasi zen bertan zuzendari lanetan. Soraluzera, berriz, Nagore Sanz joan zenean etorri zen. Makinatxo bat abesbatza zuzentzen ibili ondoren, gaur egun, Elgoibarko musika-eskolan dihardu, bertako umeen abesbatzak zuzentzen; eta Ondarroan DBHn musika eskolak ematen ditu.

Zein ezaugarri nabarmenduko zenuke Soraluzeko abesbatzatik?

Oso dinamikoak dira. Oso giro ona dago, oso familiarra. Eta oso langileak dira, kasu egiten didate (barre). Gainera, hasieran, akaso, kosta egin zitzairen dantzak ere egitea, baina orain denetik egiten dute.

Eurek diote zuzendari baino, koro-kide zarela...

Egia esan, bai. Oso ondo pasatzen dut. Agindu behar dudanean egintzen dut, baina, bestela, eurak

bezalakoa naiz, beste kide bat. Familia bat gara.

Kanpotik zela ikusten da abesbatza?

Berezia da, beti egon delako adin desberdineko jendea. Berezia da, baita erreperitorioa bilatzerako orduan ere, ze enfokea oso zaila izaten da adin desberdintasun horregatik. Edozein modutan, oso deigarria da jarduera batek adin desberdineko jendea batzea. Ez dakit bestelako jarduera batek hori lortzen ote duen. Herri horretako abesbatza desberdina da.

25 urte beteta, ikusten diozu beste 25 urte betetzeko adina indar?

Gaudenok, behintzat, lana egiten ari gara. Horretan jarraituko dugu eta gu saiatuko gara. Baina animatuko nuke herriko jendea etortzera. Beste 25 urte irauteko jendea behar da.

Sasoi hartan Nagore Sanz zen zuzendaria, eta saltsetan ibiltzen ginen batzuoari esan zigun ea nahi genuen nagusien abesbatzan aritzea, ze guk berez musika-eskolako bi urteak beteta genituen. Neu umetan hasi nintzen musika-eskolan. Eta odolean ere zerbait egongo da... aitaita-eta orduan bazebiltzan-eta... Musika-eskolan ikasi nuen flauta eta gitarra”, dio Ugaldek.

Etxean, Estatuan eta nazioartean

25 urteotako ibilbideari errepasotxo eskatuta, berriz, gogoangarritzat dute 2003ko irteera: “Unescoko palazioan kantatu genuen (Parisen). 2003an. Abesbatzen topaketa batean parte hartu genuen. Hara joan, kontzertu txiki batzuk eman eta gero bertaratu ginen abesbatza guztiek elkarrekin kontzertu erraldoi bat egin genuen. Atzerrira egin genuen lehen bidaia izan zen. 2010ean, berriz, Munichen egon ginen, beste topaketa batean. Eta han tope egin genuen Alemaniako neska-talde batekin, euskaraz kantuan zebilen talde alemaniar batekin, eta Javi Bustoren kantua bat dut gogoan” dio Olaizolak.

Anekdotak eskatuta, berriz, *Valentziakoa*, diote: “Valentzian, aurtan, euskarazko kantua batekin, (harmonia arraroa zuen, gainera), ibili ginen denok galduta, baina azkenean, ez dakigu zela, denok bukatu genuen tonu berean; zuzendaria bera ere jota harrিতuta geratu zen. Ze kanpora begira, ez zen ezer igarri. Baina, egia esan, denok galduta ibili ginen. Izan zen *una canción a 20 voces*. Bakoitzak kantatu zuen bere modura, baina azkenean bukatu genuen denok tonu berean”, kontatzen dute barrez.

Gazte jendea

25 urte beteta, beste horrenbeste betetzeko gertu ote dauden galdetu eta hala daudela diote, baina gazte jende gehiago behar dutela ere argi dute. “Kanpora joan izan garenean, besteak asko harritzen ditu zenbat gazte dugun ikustek. Baina orain dela hiru urte, ikasketen ondorioz, kide gazte batzuk kanpora joan ziren ikastera, eta jarraipena eten egin da”, jakinarazi du Ane Ugaldek.

Izan ere, daukatenari eustea dute helburu: “Erronka handiak baino, nahi duguna da daukaguna mantendu, eta indartu. Lehen zera egiten genuen: partitura ikasi eta abestu. Eta orain musikalki hobetu egin nahi dugu, ahotsak bat izatea, eta talde txikia izateak mugatu egiten gaitu”, esan du Ugaldek. Hala, taldea handitzea edo sikiera gazte jendea erakartzea da helburua eta musika-eskolarekin elkarlanean dabilzala jakinarazi du Ugaldek: “Estrategikoki musika-eskolarekin gertutasuna lantzen ari gara, umek eta gazteek gertuago ikus dezaten nagusien abesbatza, errelebo hori errazteko, eta argi utziz nahiz eta urte batzuetan laga beharra izan, beti dagoela bueltatzeko aukera”.

Batasun handia

Edozein modutan, euren jende beharra duten arren, abesbatzak egiten duen ekarpena balioan jartzen dute



Abesbatzako kideak Valentzian, aurtan.

Olaizolak eta Ugaldek segituan. Ugaldek “giro ona” azpimarratu du: “Edadez desberdinak eta estiloz ere desberdinak gara. Egia da abesbatzan parte hartzea sakrifizioa dela. Baina konpentsatzen du dugun giro onak”. Olaizolak ere hori dio: “Kanpoan beti esan izan digute: jo, halako adin desberdinak izanda ere, ze ondo konpontzen zareten! Harremana berezia da”.

Hori barrura begira, ze kanpora begira ere antzera da; kontzertuetara joaten den ikusle kopurua ikustea besterik ez dago. Horri buruz Olaizolak hauxe dio: “Herriak harrera ona egiten digu. Kontzertuetan beti dugu ikusle gozalea, eta ez dugu sekula izan kontzertu bat jende gutxiarekin. Beti bete samar izan dira aretoak. Adibidez, bilbotarrak egon zirenean gerturatu ziren 115 ikusle eta donostiarrak egon zirenean, ostera, 98. Kontzertu guztietan egon dira 80-120 bat lagun bitartean. Abesbatzak datozenean, zera galdetzen digute: *Jenderik etorriko da? Zenbat jende etorriko da?* Eta guk erantzuten diegu: *Bada, 100 bat pertsona-edo*. Haiek, berriz, harrিতuta galdetzen digute, horrenbeste jende halako herri txiki batean? Eta gero ikusten dute jendea eta zera esaten dute: *Aizu, bete egin da*. Beraz, zaletasuna badago. Egia da gaztediari kosta egiten zaiola joatea, akaso ez delako euren estiloa, edo ez dutelako ezagutzen...”.

Hori abiapuntua; bukatu berriz, gonbita eginez bukatu dute: “Etortzen dena ez da damutuko. Oso gustura ibiltzen gara. Musika apur bat gustatuz gero, lagunartean egoteko aitzakia ederra da abesbatza. Eta musika irakurtzen jakinez gero, askoz hobe, baina inportanteena da musika gustatzea; beraz, edozein animatzen dugu abesbatzara etortzera; etortzen bada pozik ibiliko da, ziur”, dio Ane Ugaldek. “Bide batez, laguntzarengatik Udalarri eta *Soraluce Kooperatibari* eskerrak emateko aprobetxatu nahi dugu”, adierazi du Ugaldek.

“Guk egiten ditugun kontzertuak eta kontzertu ondorengoak izaten dira mundialak; errugbikoek moduan, guk ere egiten ditugu hirugarren denborak”, dio barrez Abel Olaizolak. “Eta kanpora joan edo kanpotik beste koru bat datorrenean, harreman oso jatorra egoten da. Denak edo penaz etortzen gara, edo penaz joaten dira”, gaineratu du.

48 margolan ikusgai



Krabelin Pintura Eskolako hainbat ikasle erakusketa zabaldu zutenean, martitzen iluntzean.

Soraluzeko paisaiak, gai abstraktuak, afrikarrak, animaliak, marrazki bizidun ezagun bateko protagonistak... halakoak eta beste margotu dituzte Krabelin Pintura Eskolako ikasleek eta ikusgai ipini kultura-guneko erakusketa aretoan. 48 margolanez osatuta dago erakusketa, koloretsuak eta alaiak gehienak ere, eta abenduaren 2ra bitartean izango da haiek ikusteko aukera, lanegunetan 19:00etatik 20:30era eta zapatuetan 12:00etatik 13:30era

50 ikasle

Krabelin Pintura Eskolak ibilbide luzea du Soraluzen, 10-15 urtekoa. Paula Pinillia ermuarra da bertako

irakaslea, Arte Ederretan lizentziaduna da eta diseinu grafikoan espezializatutakoa. Aurtengo ikasturtean 50 ikasle ditu, “49 ditut orain, baina beste bat ere etortzekoa da”, esplikatu du. Astean hirutan ematen ditu eskolak, ordubetez: martitzenetan eta eguaztenetan 15:00etatik 19:00etara eta eguenetan 17:00etatik 19:00etara. “Eskola pertsonalizatuak izaten dira, ume bakoitzaren araberakoak. Gainera, ordubeteko eskolez aparte, bi orduko eskolak hartzeko aukera ere bada”, esplikatu du irakasleak. 5-6 urtetik aurrerako ikasleak onartzen ditu Pinillak; eta umeez aparte, helduez osatutako taldea ere badauka.

Kultura bonoak salgai

Liburuak, diskoak zein DVDak erosteko kultura bonoak erabiltzeko aukera izango da, baita Soraluzen ere. 20 euro balio dute kultura bonoek, eta bi motakoak daude: euskarazko produktuak erosteko eta gainontzeko hizkuntzetakoak erosteko.

Euskarazko produktuen kasuan, kultura bonoa erabilia, 12 euroko hoberia eskuratuko du erosleak; eta

gainontzeko hizkuntzetako produktuen kasuan, berriz, 8 euroko hoberia. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako ekimena da berau.

Bi saltokitan

Abenduaren 4tik urtarrilaren 15era bitartean erabili ahalko dira kultura bonoak. Soraluzeko kasuan, hiru saltokitan eskura daitezke: Iratxo gozoki-dendan eta Tabako-dendan.

‘Handia’ filma eta beste, abenduan antzokian

Soraluzeko Udalak berak, zein Atxolin Guraso Elkarteak harekin elkarlanean, abendurako hiru hitzordu egin dituzte, umeendako zein helduendako. Egutegiko gertukoenetik hasita, Enredo familiar antzezlanak estreinatuko du eskaintza, abenduaren 2an, 20:00etan. Abenduaren 3an, berriz, Haur Zinema Zikloaren baitako lehen hitzordua izango da, Printze Txikia filmarekin, 17:00etan. Eta abenduko azkeneko hitzordua handia izango da, filmaren izenak berak dioen moduan; izan ere, zinema zirkuituetan hainbat aipamen, sari eta kritika positibo eskuratu dituen Handia filma emango dute, abenduaren 14an, 21:00etan.

Bestalde, Haur Zinema zikloari dagozkion gainontzeko hitzorduak honakoak dira:

- Urtarrilak 21: *Albert*
- Otsailak 4: *Hurra eta lapurrak 2*
- Otsailak 18: *Tom txiki*
- Martxoak 4: *Igelen erresuma*
- Martxoak 18: *Marko makako*

BTNren finalerako autobusa herrian

Abenduaren 17an jokatu da Bilbon Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. Eta bertara joateko Bertsozale Elkarteak autobus antolatua ditu hainbat herritan, baita Soraluzen ere, Soraluzeko Bertsozaleen Sareak eskatuta. Dagoeneko, autobuserako txartelak eskuragai daude bertsosarrerak.eus atarian.

Jatearen plazarrera, bertatik bertara



Batzoki

eguneko menua
anfitrioneriaz
kama eta raziokak

eguzterekak eta
hamburgeriak
enikango bereziak

Saioa eta
lagun arriko
hotelakak

Emendak: 943 75 20 35



IZAGUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 640 867 289

ELIZPE
HORTZ KLINIKA



Zure gureko hots klinika,
puntu puntako teknologijekin lan
egiten dugu. Cad-Cam sistema
bertutuko erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe@hotmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiratera
9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

Hortz klinika

27 urteko
esperientzia

Javier Alamo
Medio-Denturak
K.Z. 46.090.595

Katxo Guilleme
Odontologia
K.Z. 46.091.548

Itxur: gizeko anestesio,
odontologia orokorra,
primo trusio eta mugimena,
odontopediako, ortodontia,
epitaxiak, estetik...

Emendak 1 - Tel.: 943 75 16 13



MENDIZABAL
okindegia

Ogla - Prentza - Gosariak

Astelehenetik
ostiratera:
09:00 - 13:15
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
igandeak
08:00 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



TXOKO
KAFETEGIA

Eguneko menua,
raziokak, plater
konbinatuak,
hamburgeriak,
ogizartekoak,
gosaria, pizzak...

Kalebarreneko
kafetariotza
Tel. 943 75 17 89

**Enkarguak
egiten dira**

TXURRUKA
JATEXEA

Sukalde
tradizionala

Eguneko menua
Asteburuetako
menu berezia

Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

img. 635 71 34 08



Kontulan

ABOKATUAK

Errenta aitortzerak • Administrazio lanak
Trafikazio burkiztas • Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontuzio/akzioak • Kontabilitates

Santa Ana 13 - 1. eta. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

KLB6

Kalebarren 6
943 67 76 28

Multzo-eta-rentzen
modulugaitzak

Alpa Jarna
MILENO
EUREK
VERO MODA



AURREZTU ENERGIA

Beratu ura eguzki izpiekin
edo airearekin

fontaneria
San Andres
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



ARRANO
taberna

Etami eta gazta
otxeko pintxoak

Exabarrieta 6
Telefonoa: 943 75 24 09



KM design

Kira Muntatzen

943 76 99 85

km.muntatzen@ymhoo.es
www.kmdesign.es

Po4, Amilaga 5
BERGARA

■ Diseinueta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-arnalduak
Logelak
Zonak
Ateak...

■ Arotzeria lanak oro har
■ Instalazioak

Euskalzaletasunaren alde:



Gaztañerreko uzta

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **UBANE MADERA**

Dezenteko lana hartu ondoren, Soraluzeko uzta kalera jaitsi zuten 22. urtez baserritarrek eta artisauek, Gaztañerre azoka gauzatzeko. Barazkiak, gozoak, artelanak, animaliak... ikusi, erosi eta ukitu zituzten bisitariak. Batean edo bestean, mahaiaren bueltan elkartu ziren eta gehienek, kantuan eta dantzan bukatu zuten eguna.

Edozelan ere, aitortzak egiteko eguna ere bada Gaztañerre; halako zazpi egin zituzten. Batetik,

Argateburu baserriko Begoña Ariznabareta Aizpirik eta Ilordo baserriko Martina Eguren Atxak, baserritarrei dagokien omenaldia izan zuten. Azokako saltoki onenen artean, berriz, aitortza izan zuten Arizagak (lehena), Lesarrik (bigarrena) eta Goenetxetxok (hirugarrena). Eta alkatearen ahotik aitortza jaso zuen, baita ere, Maite Narbaiza zenak, "Gaztañerre bultzatu, sustatu eta martxan" jartzearen.





Aitor Gabilondo eta Nerea Torrano

Soraluzetik Pintora



TESTUA: UBANE MADERA

Aitor Gabilondo eta Nerea Torrano (biak Soraluze, 1976) Madrildik 20 kilometrora dagoen Pinto hirian bizi dira, 1999az geroztik. Leire eta Nahia, 8 urteko alabekin bizi dira bertan, lanbidea tarteko.

Zela bukatu zenuten Pinton?

Ikasketak bukatzean beka bat lortu nuen (Aitorrek) hegazkin-konpainia bateko zentratean lan egiteko, eta horrela etorri ginen. Orain biok gaude lanean, Nerea bidaiaria-agentzia batean lan murrizketarekin umezaintza dela medio, eta ni finantza entitate batean.

Zelakoa da Pintoko bizimodua?

Pinto Eibarren antzerako hiri bat da eta Madril baino askoz lasaiagoa. Umeentzat parke eta jolastoki nahiko dago. Bertoko jendeak harrera ona egin digu. Madrilen etorkin asko bizi da eta harrera ona egiten dite normalean.

Alabak gaztelaniaz hezi arren, familian zela konpontzen zarete?

Etxean euskaraz egiten saiatzen gara, eta zapaturio Madrildo Euskal Etxean eskolak dituzte. Euskara ondo ulertzen dute baina hitz egitea gehiago kostatzen zaie.

Hori bai, eskolako lagunei euskarazko hitzak erakusten dizkiete.

“Normalean hilean behin Plazentziara joaten saiatzen gara”

Sentitzen duzue herriminik?

Herrimina sentitzen da hangoak garelako eta familia eta lagunak faltan botatzen ditugulako. Hala ere, hemen lagun onak ere baditugu.

Zer da hango bizimodutik gehien gustatzen zaizuena?

Aisialdirako aukera asko dago eta urteko egun gehienetan eguzkia dago.

Zer eraman-espordatuko zenukete?

Euskal Herritik hona itsasoa eta hemendik hara baliteke eguraldia edo eguzkia.


Gaztañerren egon zineten, ezta? Sarri etortzen zarete Soraluzera?

Bai ohitura dugu azokara urtero joateko, behin ezin izan ginen joan elurra zegoelako bidean.

Normalean hilean behin joaten saiatzen gara, hala ere umeekin gero eta aktibitate gehiago ditugu hemen eta askotan ezin. Hala ere, umeak beti daude joateko prest hango lagunak eta senideak ikusteko.

Noizbait bueltatuko zarete hona?

Baliteke, nork jakin ...



1. Nerea eta Aitor Alcalako Atearen aurrean.
2. Nerea eta Aitor Nahiarekin eta Leirerekin.
3. Nahia eta Leire, baserriar jantzita.

ERREZETA



**Rosa
Astigarraga**
BATZOKI
JATETXEKO
SUKALDARIA

Bakailao kokotxak onddo txapelekin



Osagaiak (4 laguntzako):

20 bakailao kokotxa

2 onddo txapel eder

8 ganba handi

Berakatz ale bat

Baso laurden txakolin

Litro erdi olio

Jarraitu beharreko pausoak:

1. Berakatz xahe-xehe egin eta lapiko batean olio birjintan kolore apur bat hartu eta gorritu arte izan; gero, kokotxak bota. Kokotxak apur bat egiten eduki eta gero txorrotata bat txakolin bota. Pil-pila soltatzeko hasi arte izan.
2. Beste alde batetik egin behar dira laminak onddo txapelekin. Izan daitezke gordinak edo izoztutakoak. Izoztutakoak badira, ez dira desizoztu behar; erdi izoztuta daudenean egin behar dira laminak, eta kozinatu. Horiek erdi eginda dauden kokotxei bota behar zaizkie, eta dena sutan jarri, eta ondo mugitu, saltsa loditu arte, 8 bat minutuan. Perrexila ere egiten zaio.
3. Apaintzeko gehitzen zaizkio pare bat ganboi, plantxan eginda. Egiteko erraza da, behar dena da genero ona izan, batez ere, onddoak.

APAINGARRI PROPOSAMENAK



**Onintza
Elgeta**

BELARRAK
SALTOKIKO
UGAZABA

Etxea zela apaindu

Dirua gastatu barik, zera egin daiteke: mendira joan eta zer mozten den kontuz eta ondo begiratuta, urkiaren adarren puntatxo batzuk moztu eta horiek margotu. Pinu zurien adar txikiak ere erabil daitezke, pinaburu txikiak dituztenak;

haziak... Gorostia ezin da hartu, baina badaude zuhaixka batzuk bolatxo gorriak dituztenak, erratzak, eta horiek ere oso politak geratzen dira. Makila txiki bat fin-fin moztu, zatitxo guztiak margotu eta bol batean ipin daitezke. Goroldioa ere har daiteke, spray zuria bota eta elur itxura eman. Kolore desberdinetako hostoekin apaindu edo kandela zuriak erosi eta margotu... Eta zuhaitzak ere egin daitezke. Hainbat adar hartu, nonbaiten sartu, hari adar txikiak itsatsi, kotoia ipini gainean elurra irudikatuz eta bolak ipinita ederki geratzen da.

JOSTAILU PROPOSAMENAK



**Leire
Garcia eta
Itxaso
Egaña**

HEZITZAILEAK

Nola asmatu?

Eguna gerturatzeko ari dela eta, Olentzero eta Mari Domingirengana joan naiz gabonetan oparitzeko zer eskatu jakin gabe. Zeharo galduta pentsatu eta pentsatu gerturatu zaizkidan arte :

Zeren bila zabilta?, zein da bere adina? Bakarrik edo taldean jolastea nahiago ahal du? Egurrez edo beste material batez egindako jolasak aukeratuko ditugu? Etxean edo kalean jolasteko zerbaiten bila ahal zabilta? Zein motatako jolasak gustatzen zaizkio? Estrategia jolasak, logikazkoak, jolas simbolikoak, sormena lantzekoak...

Nik gomendatuko nizuke, momentu on bat pasatzea ekarriko duen zerbait aukeratzea, haurraren beharrak aseko dituen eta aldi berean jolasaren bidez ikaskuntza bat bermatuko duen opari bat izatea.



Izaskun Gantxegi eta Eloi Uriarte.

43 urteren ostean

Urriaren 27an bueltatu zen Soraluzera Eloi Uriarte Díaz de Guereño (Soraluze,1942), berrogeita hiru urte herritik kanpora eman ondoren. Asteburua bertan eman zuen, aspaldi ikusi barik zituen parajeak eta lagunak bisitatzen.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Biharamunean, urriaren 28an, eman zion elkarrizketa Pil-pilean aldizkariari San Andresen, lagun eta senide batzuekin batera Karakateetik bueltan zetorrela.

Bueltatzean sentitu duena “deskribaezina” dela adierazi du: “Nerbioak asko, emozioa... Nagusiak, gazteak, ezagutzen ez nuen jendea edo harremana galduta nuena... Jende guzti horrekin topo egiteak sekulako inpresioa egin dit”. Eskerronezko hitzak izan ditu urteotan lagundu dioten herritarrendako: “Inoiz ezingo dut ahaztu, Izaskuni eta niri eman diguten babes guztia. Momentu oso gogorrak pasatu ditugu eta herritarrengandik jaso dudana babesa oso garrantzitsua izan da niretzat”.

Deserrian pasatutako urteen berri eman digu gero: “1974an iritsi nintzen Iparraldera. 76an atxilotu egin ninduten eta gartzelaratu, hiru hilabetez. Gero departamentu batera eraman ninduten, Italiatik hiru kilometrorra dagoen herrixka batera. Handik alde egin nuen, berriz Iparraldera bueltatzeko, eta sei hilabetera, atxilotu eta Yeuko irlara eraman ninduten. Han egin

**“Inoiz ezingo dut ahaztu
Izaskuni eta niri eman diguten
babes guztia”**

nituen hiru hilabete. Hori izan zen lehenengo aldia, eta, harrezkero, beste askotan deportatu naute”. 1985etik 1991ra bitartean, errefuxiatu estatusa izan zuen Frantzian; baina estatusa erretiratu ostean, hainbat aldiz gartzelaratu eta konfinatu zuten ETaren finantza aparatuko kide izatea egotzita.

Idea politikoen inguruan aldaketarik izan duen galdetuta, ezetz erantzun digu: “Aldatu, ezertan ez. Ikusi dut geure buruari jarri genizkion helburuak jeisten joan direla, dela presioarengatik, dela Ezker Abertzaleak izan duen laguntza txikiarengatik. Hartan genbiltzan guztiok genekien ez genuela potentzia polizial, militar eta politikoa garaitzeko indarririk, baina pentsatzen genuen lortuko genuela jende hori eserraraztea Euskal Herriaren arazoari erantzun ziezaion... Aitortzen dut niri



1. 2016ko azaroko adierazpena. Alkate eta zinegotzi izan diren hainbat herritarrek agerraldia egin zuten Sorailuzeko antzokian, 70 urtetik gora dituzten preso eta iheslarien giza-eskubideak errespetatu zitezen eskatzeko.
2. 1977an Yeuko irlatik ateratzeko. Bertan, Eloi Uriarte ageri da, Jose Luis eta Manuel Makazaga hernaniarrek batera. Aldamenean, gendarma eta abokatua.
3. Eusebio Lasarte oriotarra bertso kantari harrerara ekitaldian.

“Hogeita hamalau urterekin atera nintzen herritik eta hirurogeita hamabostekin bueltatu naiz”

kosta egin zitzaidala armak uzteko erabakia digeritzea. Aldi berean ikusten nuen horrela izan behar zuela”.

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboaren mintzakidetzaren taldeko kidea da Eloi eta itxaropentsu begiratzen dio Bakearen Artisauak mugimendua Iparraldean egiten ari den bideari: “Nik berba egin dudana jendea oso animatua eta esperantza handiz ikusi dut, uste dutelako epe laburrean etor daitekeela zerbaiteko garrantzitsua. Neuk ere hala uste dut. Ikusten da Frantziako estatuak ardura gehiagorekin heldu diola gaiari, eta, zer esanik ez, Iparraldeko arduradun politikoei. Iparraldeko kargudunek ikusi dute presoen auzia konpondu beharreko zerbaiteko delakoa. Ondoren, ikusiko dugu erabaki horrek eragingo dion Espainiako estatuaren politikari ala ez”.

Urte asko dira Eloi Miarritzen bizi dela, eta azken urteotan bizitza arrunta egin du. Gaur egun, Espainian ez du inolako kargurik, eta itxaropena du Frantzian aspalditik zabalik duen auzia bertan behera lagako dutela laster. Hain zuzen ere, abokatuek lege aldetik eragozpenik ez duela adierazi diotenean erabaki dute hegoaldera etortzea. Pentsatzen du, epe laburrean beste iheslari askok ere antzeko erabakia har dezaketela: “Nik uste dut baietz, poliki-poliki jendea etorri egingo dela”.

Etorkizunean, asma du herrira sarriago etortzeko, eta bidaiatzeko: “Gustatuko litzaidake Euskal Herria ezagutzeko, ez dut ezagutzen eta. Hogeita hamalau urterekin atera nintzen herritik eta hirurogeita hamabostekin bueltatu naiz”.

Bazkaria eta kantaldia

43 urte eta gero... Eloi eta Izaskun herrira izenburupean egitaraua antolatuko dute zapatuko. Herri bazkariarekin hasiko dute eguna, eta bazkal ostean, *Herrira dugu arnas* kantaldia egingo dute karpan. Triki-poteoa egingo dute 19:00etan eta egunari amaiera emateko, kontzertuak izango dira: Gaztetxean, Kobrazulo, Garraxi eta DJ musikariak.

ZORION AGURRAK



Nahia Mendia Hernaez
Azaroan 23an, 11 urte. Patxo haundi bat etxekuen partez eta batez ere Eukenen partez!!



Markel Lizarralde
Azaroak 10, 6 urte Zorionak eta muxu potolo bat denon partez. Pila pila maitxe zaitxugu!!!



Manex eta Miren Osinaga
Azaroak 21ean, 14 urte. Abenduaren 11n, 10 urte. Muxu handi bat etxekuan partetik!!!



Haizea Makinai
Azaroaren 19an, 10 urte. Zorionak polixori! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu! Etxekoak eta muxu.




Unax Sudupe
Urriaren 29an, 12urte. Zorionak! Patxo handi bat etxekuen partez.



Frank Carballo Collarani
Azaroaren 18an, bi urte. Urtebetetze zoriontsua! Maite zaitugu umetxo!

JAI OBERRIAK




Unai Gabilondo
Abenduaren 5ean, 10 urte Zorionak Unai, etxeko partez!



Nahia Mendia Hernaez
Azaroaren 27an, 2 urte. Ze handia egin zaren! Muxu handi bat zure familiaren partetik.



Alazne Jaione Caceres Garcia
Irailaren 17an jaio zen.



Elian Claudio Carballo Collarani
Azaroaren 5ean jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Jaiotakoak
Elian Claudio Carballo
Wassim Youssef Lahmar Labiad

Hildakoak
Inocencio Castro Negro
Emeteria Lete Arando

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...
605 706 086
aldizkaria@pilpilean.com

ESKELAK

OROITZA

Anjel Irazabalbeitia Aldazabal



1994ko azaroaren 18an hil zen.

Herri aske bat amesten zendun katerikan etzuen, ta herri horren alde borrokan eskeini zenuen dena,

zuk erretako hazien fruituz ase nahi dugu barrena, ta garaipena izango duzu omenaldirik onena.

Beti izango zaitxugu gure bihotzetan

Lurdes eta sendia

III. URTEURRENA

Jose Luis Ariznabarreta



2014ko abenduaren 18an hil zen.

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen. Eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.

Etxekoak



Dacia Sandero berria

Errazago ezin



6.450€* -tik aurrera

**MANTENIMENDUA 2 URTEZ ETA
AUTO-ASEGURUA URTE BATEZ, DOAN****

Sandero gama: kontsumo mistoa (l/100km), 3,5etik 5,2ra bitarte.
CO₂ isuria (g/km) 90etik 117ra bitarte.



Dacia España



Dacia ESP

DACIA
GRUPE RENAULT

www.dacia.es / 915 065 359 | **Dacia. Hain da erraza... ezer ez baita berdin izango.**

*Eskaintza eta gomendatutako PSPa Penintsularako eta Balearretarako da, dela partikularrentzat, dela autonomoentzat, baldin eta Dacia Sandero Base 1.0 54kW (73ZP) bat eskatzen badute eta Preference-ren bidez finantzatzen badute RCI Banque SA Sucursal en España-rekin. Barne daude BEZA, matrikulazio-zer-ga, garraioa eta RECSAK eskaintako promozioak. Iraupena: 24 hilabete gutxienez. Finantzatutako beharrek gutxieneko kopurua: 4.000 €. Opari diren aipatutako mantenimenduak 2 izango dira gehienez ere, 2 urtez edo 40.000 km egin arte (lehenengo gertatzen dena). 600 €-ko frankiziadun arrisku orotako aseguruia lehen urtean, Mapfre-rekin. Aseguruia eta mantenimendua RECSAren opari dira. Eskaintzak 2017ko azaroaren 1etik 30era irauango du. Ez da bateragarria beste finantza-ekintza batzuekin. Irudiko modelo: Sandero Stepway TCe berria, 66kW (90ZP); gomendatutako PSPa: 9.150 €.

**Sandero gama: kontsumo mistoa (l/100km), 3,5etik 5,2ra bitarte.
CO₂ isuria (g/km) 90etik 117ra bitarte.**

Dacia gomendatzen du

GAURSA CARS OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL.: 943 82 09 74. EIBAR

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

AURKEZPEN PUBLIKOA

ABENDUAK 3, IGANDEA

PLAZA BERRIA • 13:00

Hizkuntza aktibaziorako
dinamika berria,
hizkuntza esperientzia
berriak bizitzeko

BATU SUTONDORA

Hizkuntza ohiturak eta
11 Egun euskaraz egitasmoa

Abenduak 16, larunbata
10:30ean, Herri Antzokian

EUSKARALDIA

EUSKARAZ
365
EGUN